

MAHAI SEKTORIALEKO SINDIKATU GUZTION IRITZIAREN KONTRA INPOSATUTAKO ARAUDIA

Gaur goizeko mahai sektorialaren aurretik, interinoen kontratazio araudiaren zirriborroarekiko gure desadostasuna plazaratu dugu beste behin ere elkarretaratze baten bidez.

Mahai horretan, gure kontrako jarrera berretsi dugu. Gainontzeko sindikatuak ere kontrako botoa eman dute. Hala ere, Departamentuak ez du negoziatorik irekiko eta ez du atzera egiteko inolako asmorik adierazi. Beraz, araua dagoen bezala inposatuko digute.

Azpimarratu nahi dugu arau hau inposatzeko erabili duten aitzakia, lehengo araudiaren aurkako epaiak behartzen duela, gezurra dela. Baziren irtenbide ezberdinak, baina erabaki politikoa da lehentasunezko zerrendak ezartzea.

Tamalez hemendik aurrera jasango dugun kontratazio araudiak segregatzailea izaten jarraituko du, interinoen eta ikastetxeetako plantillen egonkortasuna ez du bermatuko, eta ez dio inori onurarik ekarriko.

STEILAS eta ELA sindikatuko kideok ez dugu etsiko eta araudi hobea baten alde borrokan jarraituko dugu.

UNA NORMATIVA IMPUESTA EN CONTRA DEL CRITERIO DE TODOS LOS SINDICATOS DE LA MESA SECTORIAL

Antes de que se celebrase la mesa sectorial, hemos expresado una vez más en una concentración, nuestro desacuerdo con el borrador de la normativa de contratación.

En esa mesa, hemos confirmado nuestra postura contraria, al igual que el resto de sindicatos que también han votado en contra. No obstante, el Departamento no abrirá ninguna negociación, ni ha mostrado ninguna intención de dar marcha atrás. Por tanto, nos impondrán la norma tal y como está,

Queremos subrayar el pretexto que han utilizado para imponer esta norma es falso, es decir, que la sentencia de la anterior normativa les obliga. Disponían de varias opciones, pero ha sido una opción política implementar las listas preferentes.

Desgraciadamente la normativa de contratación que sufriremos a partir de ahora seguirá siendo segregadora, no garantizará la estabilidad ni del personal interino, ni de las plantillas de los centros, y no supondrá una mejora para nadie.

Los sindicatos STEILAS y ELA no nos rendimos y seguiremos luchando por una normativa mejor.

